



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ EGITEN BAITA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAN IKASLEEK, HEZKUNTZA-ARLOAN ESKUMENA DUEN SAILAK FINANTZATUTA, DAUKATEN ESKOLA-GARRAIOARI BURUZKO XEDAPENAREN KONTSULTA PUBLIKOA

Maiatzaren 19ko 69/2015 Dekretuak, eskola-garraioari buruzkoak, xedatuta utzi zituen hezkuntza-administrazioak antolatu edo finantzatutako eskola-garraioaren erabilera zer kasu eta baldintzatan egingo den, baita Hezkuntza Sailaren ikastetxe publikoetako ikasleentzako zerbitzu osagarri hori emateko eta jasotzeko zer modalitate dauden ere. Dekretu hori bi aldiz aldatu da; lehena azaroaren 26ko 186/2019 Dekretuaren bidez, eta bigarrena irailaren 28ko 217/2021 Dekretuaren bidez.

Hezkuntza Sailak uste du beste xedapen orokor bat egin behar dela, eskola-garraioa arautuko duen dekretu berria argitaratzeko.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua arautzen du herritarrei alde aurretik egin beharreko kontsulta.

Halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 133.1 artikuluan ezartzen duenez, xedapen arautzaile baten proiektua egin aurretik, kontsulta publikoa bideratuko da administrazio eskudunaren web-atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsonak eta erakunderik ordezkagarriek.

1.- Arau-ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak.

Lehenik eta behin, bere aplikazio-eremuan sartu nahi dira Batxilergoko eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleak, garraio publiko erregularren eskaintza urria dela-eta, ikastetxera joateko zailtasun bereziak dituztenak.

Bigarrenik, araudia egokitu nahi da Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleen onarpena, esleipena eta matrikula arautzen dituen prozedurara.

Hirugarrenik, arautu behar da egoera hau: hezkuntza-administrazioak ikastetxea esleitu badu, horrek, ondorioz, garraiorako eskubidea sortzen du, interesdunek aurkeztutako eskaera kontuan hartuta.

Azkenik, saihestu egin behar da ikasleek eskola-garraiorako eskubidearen onuradun izateko eskaera egitea, jantokiko kuota murriztua lortzeko, garraioa erabiltzeko asmorik gabe. Hori printzipio hauen aurkakoa da: finkatutako helburuak eraginkortasunez betetzea; ekonomia, nahikotasuna eta erakunde-helbuetara baliabideak zorrotz egokitzea; eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean deskribatutako baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.

2.- Araua onartzeko beharra eta egokitasuna

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan zehazten denez, honako hauek dira hezkuntza-sistemaren printzipioak: ikasle guztientzako kalitateko





hezkuntza, haien zirkunstantziak eta egoera edozein direlarik ere; ekitatea, hezkuntzaren bidez pertsonalitatea osoki garatzea bermatuko duena; hezkuntza-inklusioa; eskubide eta aukera berdintasuna, edozein diskriminazio gainditzen laguntzeko; eta hezkuntzaren eskuragarritasun unibertsala, ezberdintasun pertsonalak, kulturalak, ekonomikoak eta sozialak konpentsatzeko, desgaitasunen ondoriozkoei arreta berezia eskainita.

Hezkuntza-administrazioek hezkuntzarako eskubidea baliatzeko baldintzak ezarri behar dituzte aipatutako arau eta printzipioen arabera.

Era berean, hezkuntza-sistemak erraztu egin behar du eta administrazio publikoek sustatu egin behar dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko prestakuntza edo baliokidea lortzea.

Zalantzarik gabe, eskola-garraioak baldintzatu egiten du eskubide hori baliatzea eta funtsezkoa da hezkuntzan sartzeko berdintasun eta ekitate printzipioak bermatzeko. Hori dela eta, hezkuntza-administrazioek bere gain hartu behar duten betebeharra da.

3.- Egin nahi den arau-proiektuaren helburuak

Dekretu-proiektu honen xedea da eskola-garraioari buruzko dekretu berri bat egitea eta onartzea, orain arte egindako aldaketa guztiak testu bakar batean bildu, zerbitzu osagarri hori eskuratzeko garaian berdintasun- eta ekitate-printzipioen arabera araututa, eta zerbitzua erabiltzen duten ikasleei, haien familiei eta ikastetxeei ahalik eta segurtasun juridiko handiena emanda.

4.- Egon daitezkeen ordezkotako irtenbide erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik

Arauzko prozedura hau beharrezkoa da hezkuntza-administrazioak antolatutako edo finantzaturako eskola-garraioa eskuratu eta erabiltzeko kasu eta baldintzak arautzeko, bai eta zerbitzu osagarria hori emateko modalitateak arautzeko ere. Berdintasunaren printzipioa bermatzeko, ez dago ordezkotako irtenbide erregulatzailerik edo ez-erregulatzailerik.

Beraz, beste dekretu-proiektu bat izapidetzen hastea erabaki da, proiektaturako legegintza-ekimena arau-esparrua osatzeko egokiena dela iritzita.

Horregatik guztiagatik, kontsulta:

- Irekitzen da erakunde publiko eta pertsona fisiko guztientzat, baita arauzko erregulazio honek ukitzen dituela uste duten erakunde, entitate edo elkarteentzat ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratuko da.
- Hamabost eguneko epea ezarri da, ukitutako erakundeek, herritarrek eta haien entitateek egoki iruditzen zaizkien iradokizunak eta oharrak aurkez ditzaten.

Kontsulta publikoaren izapidea da, beraz, une honetan bideratzen ari garena, aurreikusitako lege-eskemari jarraituz. Arau-proiektua egin aurretik gauzatuko da kontsulta hori, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legeak ezartzen duenez.



Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak esleitzen dizkidan eskumenekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. - Kontsulta publikoa egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioari –hezkuntza arloan eskumena duen sailak finantzatutakoari– buruzko dekretu-proiektua egin aurretik.

Bigarrena. - Arauak ukitutako herritarrek eta erakundeek, hala nahi badute, beren iritziak helarazteko modua izango dute agindu honen eranskinean azaltzen diren gaiei buruz, hamabost eguneko epean, kontsulta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

JOKIN BILDARRATZ SORRON
HEZKUNTZAKO SAILBURUA